

ELKARRETARATZEA BAIONAKO HERRIKO ETXEAN

Urriaren 18an, 11etan

Palestina : ezer ez da aldatu !

Palestinar populuaren eskubideak defenda ditzagun !

Gaza gaur egun : infernua !

Israelek 50 egunez gerla burutu eta, bertan 2200 palestinar hil ondoren, egoera dramatiko da oraindik Gazan : 100 000 Gazako biztanle etxerik gabe eta 450 000 ur edangarririk gabe; 32 eskola suntsituak izan dira eta 150 kaltetuak; bi ospitale handi partzialki suntsituak. Elekrika zentral bakarra ez dabil gehiago.

Israeldar dronak Gazaren gainean dira beti. Kostaldean ibiltzen diren Israeldar itsasontziek, arrantza-leak tirokatzen dituzte; bat zauritua izan da berrikitan. Israeldar armadak hiru gazte israeldar Zisjordanian bahitzea eta erailteza frogarik gabe akusatuak ziren bi palestinar garbitu ditu, Hebronan, irailaren 23an.

Zisjordaniaren kolonizazioak jarraitzen du. Agorrilaren bukaeran, 400 hektarea gehiago beretu ditu Israelek.

Blokeoak segitzen du. Berreraikitzeko ekaiak ez dituzte Gazan sartzen uzten. Biztanleen % 80a laguntza humanitarioari esker bizi da.

Israelen ere, erresistentziak

Abuztuaren bukaeran, Tel Aviven, 10 000 israeldar, judu nahiz arabiar, gerlaren aurka elkarrekin manifestatu dute, errepresioa izanagatik.

Militar informazio eliteko zerbitzua den 8200 unitateko 43 soldadu eta erreserba ofizialek beraien espioitza aktibitatea segitzea ukatu dute, irailaren erdialdean argitaratu manifestu baten bidez. Milioika palestinarrei jasanarazten zaizkien pertsekuzio politikoa, kontrola eta erregimen militarra salatzen dute.

Errepresioa Frantzian

Frantses gobernamenduak hasieratik beretik israeldar esku sartze hilgarria zilegitzat jo zuen, Netanyahou gobernamenduaren konplizea bihurtuz.

Orain, esku sartzea gaitzetsi zuten eta Palestinako populuarekin elkartasunez manifestatzera deitu zuten militante batzuk auziperatuak dira. Horrela Alain Pajolat epaituko dute urriaren 22an, Parisen debekatutako manifestaldien bozeramaile izateagatik. Beste batzuk deituak dira auzitegira, manifestaldi denboran, lehenago edo ondotik atxilotuak izan baitziren.

Halaber, BDS (Boikot, Desinbestitzea, Zigor) kanpaina burutzen duten militanteak etengabe auzipetuak dira.

Palestinar populuarekiko elkartasunaren kriminalizatzea salatzen dugu eta militante horiei gure sostengua adierazten diegu.

Gatazka horretan, bada okupatzailea eta okupatua, erasotzailea eta erresistentzia.

Palestinar populuaren borrokak izen bat badu : nazio askapenerako borroka da.

Eskatzen dugu : blokeoaren altxatzea, bereizte harresiaren suntsitzea, errefuxiatuen itzultzea, NBEk bozkatutako ebazpenen betearaztea, Palestinako populuaren eskubideen aitortzea eta gauzatzea.

Palestinar populuaren erresistentzia sustengatzeko mobilizazioa indar dezagun :

Gazaren legez kontrako blokeo kriminala kentzea !

Preso guztien askatzea !

Adierazpen askatasuna bai, elkartasunaren kriminalizatzeari ez !

Gobernatzaileen konplizitatea botere sionistarekin ez !

Israelen kontrako berehalako zigorrak, nazioarteko zuzenbidea errespetatu arte!

Kolektiboa : Amis de Karl Marx; Association France Palestine Solidarité 40; CIMADE; Collectif Féministe contre les violences sexistes; Comité pour la Défense des Droits de l'Homme en Pays Basque (CDDHPB); CGT Territoriaux Biarritz; CGT Union Locale de Boucau Tarnos; Euskal Herria Bai (EH Bai); Fédération Anarchiste (FA); Gauche Anticapitaliste (GA); IPEH Antifaxista; Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB); La Commune; Nouveau Parti Anticapitaliste (NPA); Parti Communiste Français (PCF) de Côte Basque et de Sud Landes; Parti de Gauche (PG); SOLIDAIRES.